

ERAIKUNTZAREN KOIUNTURA-INDIZEA (EKI), 2007KO 1. HIRUHILEKOA

Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %10,3 igo zen 2007ko lehenengo hiruhilekoan


Eraikuntza %10,9an hazi zen eta Obra Zibila %8,5ean

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2007ko lehenengo hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan %10,3 hazi zen, termino nominaletan, Euskal AEko eraikuntzako jarduera, 2006ko hiruhileko beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2007ko lehenengo hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %1,0 hazi zen, 2006ko laugarren hiruhilekoaren aldean

Euskal AEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua

% hazkundea



Iturria: Eustat.

2007ko lehen hiruhilekoan eraikuntza-sektorearen bilakaera gehiago oinarritu zen Eraikuntzako azpisektorean, Obra Zibileko azpisektorean baino. Izan ere, lehenak urte arteko %10,9ko igoera izan zuen, eta bigarrenak, berriz, %8,5ekoa.

Hiruhilekoen arteko terminoetan, 2007ko lehenengo hiruhilekoko sektorearen jarduera 2006ko laugarren hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta, Eraikuntzako azpisektoreak %2,9ko bilakaera positiboa izan zuen eta Obra Zibilekoak %3,2ko negatiboa.

2007ko lehenengo hiruhilekoan, eraikuntzaren sektoreko enplegua %0,7 gehitu zen, datu gordinetan, aurreko urteko aldi berdinen aldean, eta %0,3ko hiruhileko arteko jaitsiera izan zuen, 2006ko laugarren hiruhilekoaren aldean.

Taula: 2007ko 1. hiruhilekoa. Euskal AEko Eraikuntzaren Koiuntura Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	1.hir.07 / 1.hir.06	At / At-1 (1)	1.hir.07 / 4.hir.06	4.hir.06 / 3.hir.06
Produkzioaren indizea	10,3	10,3	1,0	4,7
Eraikuntza	10,9	10,9	2,9	3,8
Obra zibila	8,5	8,5	-3,2	7,0
Landunen indizeak	-	-	-0,3	0,2

(1) t urteko urtariletik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp